

i-gipuzkoa2010 | 

GIPUZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

GIPUZKOAR GIZARTEKO BIZIMODU DIGITALA 2007

GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea
territorio de innovación
www.i-gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento

AURKIBIDEA

a. Aurkezpena	2
b. Laburpena.....	4
c. Biztanleria digital aktiboa	9
d. Konektagarritasuna eta ekipamendua.....	13
e. Interneten erabilera.....	18
f. On-lineko zerbitzuak	27
g. Bizitza estiloa eta jarrera digitala	39

KUADROAREN AURKIBIDEA

d.1 koadroa	Ekipamendu teknologikoak.....	13
d.2 koadroa	Ekipamendu teknologikoak adin-taldeen arabera.....	14
e.1 koadroa	Internetera sartzeko lekua eta adina.....	19
e.2 koadroa	Erabiltzeko maiztasuna adin-multzoen arabera	22
e.3 koadroa	Erabiltzeko maiztasuna lan-egoeraren arabera.....	23
e.4 koadroa	Erabilera-esperientzia eta adina	24
e.5 koadroa	Erabilera-esperientzia eta lan-egoera.....	24
f.1 koadroa	On-line erabiltzen diren zerbitzuak	28
f.2 koadroa	Erabiltzen diren on-line zerbitzuak adin-taldeen arabera	29
f.3 koadroa	Komunitate birtualetan parte hartzeko on-line erabilera adin-taldeen arabera.....	31
f.4 koadroa	On-line erabilerak Administrazioarekin erlazionatzeko adin-taldearen arabera.....	32
g.1 koadroa	Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean adin-taldeen arabera	40
g.2 koadroa	Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean lan-egoeraren arabera	40
g.3 koadroa	Interneten eragina eguneroko jardueretan adin-taldearen arabera	41
g.4 koadroa	Interneten eragina eguneroko jardueretan lan-egoeraren arabera	42

GRAFIKOAREN AURKIBIDEA

c.1 grafikoa	Etxean Interneteko sarbiderik ez izatearen arrazoi nagusiak.....	10
c.2 grafikoa	Sexuaren, adinaren eta lan-jardueraren arabera banaketa.....	11
d.1 grafikoa	Etxekeko konexio-motak.....	15
d.2 grafikoa	Segurtasun produktuen kontratazio edo instalazioa.....	16
e.1 grafikoa	Konektatzeko lekua.....	18
e.2 grafikoa	Konektatzeko lehentasunezko lekua eta sexua.....	19
e.3 grafikoa	Konektatzeko lehentasunezko lekua eta adina.....	20
e.4 grafikoa	Konektatzeko lehentasunezko lekua eta lan-jarduerarekiko erlazioa.....	21
e.5 grafikoa	Erabiltzeko maiztasuna.....	22
e.6 grafikoa	Erabilera-esperientzia.....	23
e.7 grafikoa	Interneten nabigatzeko erabilitako hizkuntzak.....	25
f.1 grafikoa	Komunitate birtualetan parte hartzeko on-line erabilera.....	30
f.2 grafikoa	On-line erabilera Administrazioarekin erlazionatzeko.....	31
f.3 grafikoa	Prestakuntza eta ikaskuntza bereganatzeko on-line erabilera.....	33
f.4 grafikoa	Prestakuntza eta ikaskuntzarako on-line erabilera adin-taldearen arabera.....	34
f.5 grafikoa	Prestakuntza eta ikaskuntzarako on-line erabilera jarduerarekiko erlazioaren arabera.....	35
f.6 grafikoa	Erosketa elektronikoak adin-taldearen arabera.....	36
f.7 grafikoa	Internet bidez erositako ondasun eta produktu nagusiak.....	37
g.1 grafikoa	Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean.....	39
g.2 grafikoa	Interneten eragina eguneroko jardueretan.....	41

a

Aurkezpena

a.

Aurkezpena

Dokumentu honen helburua Gipuzkoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekiko (IKT) eta, zehazki, Internetekiko jarrerak, portaerak, ohiturak eta horien eraginak ezagutzea da.

Hau da,

- Jarrera pertsonalak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei dagokienez.
- Interneten eragina eta inpaktua pertsonen eguneroko jardueran, baita aisialdiko eta entretenimenduko pausoetan, beren harreman sozialetan eta beren ezagupen eta ikaskuntzan ere.
- Interneten erabileraren gaineko ohiturak eta esperientzia.

2007. urte hasieran 15 urte edo gehiago zituzten 1.661 pertsonari egindako inkestatik abiatuta egin da azterketa; emaitzen analisia adinaren, sexuaren eta jarduera ekonomikoarekin duten harremanaren arabera banandu da.

b



b.

Laburpena

15 urte edo gehiago dituzten Gipuzkoako herritarren %46 Internet erabiltzailea da (2007ko II. hiruhileko datuak); azken urteotan ehuneko horrek gora nabarmen egin duen arren, Europar Batasuneko baxuagoa da oraindik (UE-25) (%54).

Etxean Interneteko sarbidea duen Gipuzkoako herritarren ehuneko erabilpen tasa baino handiagoa da eta %51ra iristen da. Ehuneko horrek Europako batez bestekoan ipintzen du lurraldea.

Azken urteetan, aurrerapen garrantzitsua gertatu da Gipuzkoako etxeetako konexioen kalitatean eta abiaduran; ADSL teknologia dago Internet duten etxeetatik %66etan.

Gipuzkoako internauten tasari dagokionez, adinaren arabera, 15 eta 24 urte arteko tartean lortu da erabiltzaileen ehunekorik handiena (adin tarte horretako herritarren %83), eta adinak gora egin ahala ehuneko hori jaitsi egin da.

Bestalde, Internet erabiltzen duten herritarrek jarduera ekonomikoarekiko duten harremanaren aztertzeak agerian utzi du lanaren eta Interneten erabileraren arteko korrelazio baikorra.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrien aurrerapena eta aplikazio horiek pertsonen eguneroko bizitzan erabiltzea etxeetako hornikuntza teknologikoarekin zuzenean lotuta dago, batez ere Internet maiz erabiltzen dutenen kasuan.

Hori dela eta, eta Gipuzkoako biztanleria digitalak IKTetan duen hornikuntza maila aintzat hartuz, ondorengo arloak nabarmendu behar dira:

- Ordenagailu pertsonala edo mahaiko ordenagailua da herritar erabiltzaileen artean onarpen maila handiena duen IKTa (%86). Hala eta guztiz ere, ordenagailu pertsonalen edo mahaikoen onarpen maila murriztu egin da zertxobait, eta ordenagailu eramangarriak ugaritu dira.



Ekipamendu horren kasuan, eskuragarritasun tasak %10 egin du gora azken urtean, biztanleria digitalaren %35era iritsiz.

- Bestalde, esanguratsua da, horrez gain, Gipuzkoako internauten artean sakelako telefonoek (%97), kamera digitalek (%75) eta mp3 irakurgailuek (%66) duten onarpen maila.
- Aurrerapauso handiak nabarmentzen dira DVD grabagailu aparailuen (%49), bideo-joko kontsolen (%41) eta telebista digitalaren (%36) ezarpen mailan; azken kasu horretan, 2010. urterako aurrez ikusitako itzalaldi analogikoak bultzatuta.
- Gailu eramangarrien (agenda elektronikoak (PDA) edo satellite bidezko nabigazio sistemak (GPS), esate baterako) eskuragarritasuna gora doa pixkanaka-pixkanaka, %13 eta %17ko erabilpen tasara iritsiz, hurrenez hurren.

Gipuzkoan Internet erabiltzen duten biztanleek agertzen dituzten ezaugarriak dagokienez, honakoak dira nabarmendu beharreko emaitza nagusiak:

- 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako internauten ehuneko altu bat leku batetik baino gehiagotatik konektatzen da: %88k onartu dute etxetik konektatzen direla, %39k lantokitik, %17k ikastetxetik, %13k sarbide publikoetatik, hau da, liburutegietatik, KZguneetatik... eta %7k ziberkafetatik edo lokutorioetatik konektatzen direla esan dute.
- Sarbide leku ohikoenari dagokionez, internauten %80k onartu dute etxetik konektatzen direla orokorrean; gutxi batzuek esan dute lantokietatik (%14), ikastetxetik (%2) edo beste leku batzuetatik (%4) konektatzen direla.
- Bestalde, erabilpenaren maiztasunean gorakada nabaritu da; izan ere, herritarren %66 egunero konektatzen dira. Horri dagokionez, eta adinari kasu eginez, herritar gazteenek erabiltzen dute gehien.
- Internet erabiltzeko esperientziari dagokionez, herritarren laurden bat duela 2 urte baino gutxiagotik konektatzen da Interneten, eta %45 duela 3-5 urtetik.
- Gehien erabiltzen diren on-lineko zerbitzuak interes pertsonaleko informazioa lortzeari buruzkoak dira, baita komunikazioa ere posta elektronikoaren bidez (herritar erabiltzaileen %88 eta %83, hurrenez

hurren]. Honakoak dira internautek gehien erabilitako beste on-lineko zerbitzu batzuk: albisteen kontsulta (%71), informazio meteorologikoaren bilaketa (%57), musika jaistea (%53), eta finantza erakundeekin (%44) edo beste pertsona/erakunde (%44) batzuekin harremanetan jartzea.

- Bestalde, herritar erabiltzaileen %16k adierazi dute Interneteko komunitate edo gizarte sareren batean edo hainbatetan hartu dutela parte. Komunitateen gaiari dagokionez, honakoak nabarmendu behar dira: zaletasunarekin edo hobbyekin (Internet erabiltzaileen %8), kulturarekin (%7) eta lanbidearekin (%6) lotutakoak, baita trebakuntza/ikaskuntzarekin (%5) eta kirolekin (%5) lotutakoak ere. Esan beharrekoa da herritar gazteenak izan ohi direla horrelako komunitate edo sare sozialetan parte hartzen dutenak.
- Gipuzkoarrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte Administrazioako on-lineko zerbitzuak. Internauten %32k on-lineko zerbitzu publikoak erabili dituzte. Erabilpen horren helburu nagusien baitan, informazio orokorraren lorpena nabarmendu behar da.
- Gipuzkoako erabiltzaileen %32ren esanetan, trebakuntza edo izaera akademikoko helburuetarako sartzan dira on-lineko zerbitzuetan. Aintzat hartutako on-lineko formazio jardueren artean, honakoak nabarmendu behar dira: ikasketa zentroarekin, unibertsitatearekin eta abarrekin lotutako hezkuntza, eskola osteko ikastaroak eta ikasketa ez formala.
- Ondasunak eta zerbitzuak Internet bidez lortzeari dagokionez, aurreko urteetako lehentasunak mantentzen dira, zerbitzu turistikoaren erosketan nabarmenduz; honakoak, esaterako: bidaiak, ostatuak, hegazkinetako txartelak (herritarren %45), baita ikuskizunetarako sarrerak lortzea (%41) ere, edo elektronika, musika, liburuekin eta abarrekin lotutako erabilpen pribatuko ondasunak. (%27).

Interneten eta teknologia berrien aurrean Gipuzkoako biztanleria digitalaren jarrera pertsonalari dagokionez, eta Internetek eta teknologia berriek beren eguneroko bizitzan zein neurritan eragiten duten aztertze aldera, honako emaitza hauek nabarmendu behar dira:

- Internet erabiltzen duten herritarren %29ren ustez, Internet eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak oinarritzkoak edo garrantzitsuak dira eguneroko bizitzarako: zehatzago esanda, %13ren ustez, garrantzitsuak dira bizitzeko, eta %16ren ustez, beharrezkoak. Biztanleria digitalaren %65en esanetan, teknologia horiek erabilgarriak

dira; beraz, erabili egiten dituzte; hala eta guztiz ere, beren jarduera pertsonalerako eragin txikiagoa nabarmentzen dute. Herritar erabiltzaileen %6 dira teknologia horien gaineko interesik eza edo interes murriztua erakusten duten pertsonak.

- Herritar erabiltzaileen %24ren ustez, Internetik egon ezean ezingo lituzkete eguneroko gauzak egin edo zailtasunak izango lituzkete. %66k nabarmendu dute Internetik ez egoteak beren bizitza aldatuko lukeela neurri batean, eta %10 soilik biziko litzateke inolako arazorik gabe Internetik gabe.

C

Biztanleria digital aktiboa

C.

Biztanleria digital aktiboa

2007ko hirugarren hiruhilekoan, Gipuzkoako herritarren erdiak baino gehiagok, zehazki %51k, du Interneteko sarbidea etxetik. Kopuru hori %4 igo da aurreko urtearekin alderatuta, eta Gipuzkoa Europako batez bestekoan kokatu du.


Gipuzkoan, Internet etxetik edo lantokitik edo ikastetxetik erabiltzen duten herritar erabiltzaileak %46 baino gehiago dira 15 urte edo gehiago dituztenen artean, eta urte arteko tasan %4 egin du gora. Parte hartze hori Europar Batasunaren batez bestekoa baino baxuagoa da, %54an kokatu baita.

Gipuzkoako herritarrek etxean Interneteko sarbiderik ez izatearen arrazoi nagusiak interesik edo motibaziorik ezarekin du zenikusia; izan ere, %43k adierazi dute ez dutela nahi, ez dutela behar edo ez dutela tresna horren eta horrek eskaintzen dituen zerbitzuen berri. Gainera, %22k nabarmendu dute ez dutela nabigatzeko nahikoa ezagutza; beraz, hamar pertsonatatik bik adierazi dute etxean konexiorik ez izatea horretarako ekipamendu egokirik ez edukitzeagatik dela.

Beste leku batetik sartzeko aukera, konexioaren kostu altua edo segurtasun gabezia dira Gipuzkoako herritarrek etxean Interneteko sarbiderik ez izatearen beste arrazoiatariko batzuk, nahiz eta kopuru baxuagoan izan.

c.1 grafikoa__ Etxean Interneteko sarbiderik ez izatearen arrazoi nagusiak

[Etxean Interneteko sarbiderik ez dutenen %]




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Genero ikuspegitik, eta egindako inkestako datuen arabera, Gipuzkoako herritar erabiltzaileen %52 gizonezkoak dira, eta gainerako %48 emakumezkoak.

Adinari arreta jarritz, esan beharrea gaude Gipuzkoako internauten %22 15 eta 24 urte artekoa dela; antzeko proportzioan daude 25 eta 34 urte artekoak (%29) eta 35 eta 44 urte artekoak (%23) ere. 45 urtetik aurrera, internauta kopuruak nabarmen egiten du behera; %17 dira 45 eta 54 urte arteko tartean, eta %9 55 urte edo gehiagokoen artean.

Lan jarduerarekiko loturaren arabera herritar internautaren banaketaren azterketak erakutsi du herritar erabiltzailearen %70 inguru lanean ari dela, eta besteen kontura lanean ari direnak gehiago dira norbere kontura ari direnak baino. Bestalde, ikasleak dira herritar erabiltzailearen bostena, eta etxean lan egiten duten pertsonen, lana eskatzen ari diren herritarren eta erretiroa hartutako herritarren ekarpena nabarmen baxuagoa da.

c.2 grafikoa__ Sexuaren, adinaren eta lan-jardueraren arabera banaketa



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Osagarri gisa, herritar internautaren adina eta sexua kontuan hartuta, azterketak agerian utzi du adinez helduago direnen artean gizonezkoak digitalki aktiboagoak direla emakumezkoak baino, eta bitarteko adin tartean (35 urtetik 54 urtera) emakumeen presentzia handiagoa dela.

d



Konektagarritasuna eta ekipamendua



d. Konektagarritasuna eta ekipamendua

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek (IKT) izan duten aurrerakuntzak eta horiek pertsonen eguneroko jardueretan izan duten eraginak zerikusi handia izan du herritarrek ekipamenduak eskuratzeko prozesuan. Era berean, ekipamenduen interkonektagarritasunak teknologia berriek eskaintzen dituzten aukera zabaldu egiten du; horrela, herritarrek gehiago aprobetxatzen dituzte teknologia horiek.

Hori dela eta, nabarmendu beharrekoa da ordenagailu pertsonala edo mahaiko ordenagailua dela gehienek duten informatika ekipamendua, eta %86ko txertatze maila du Gipuzkoako biztanleria digitalaren artean. Hala eta guztiz ere, pixkanaka-pixkanaka, ordenagailu eramangarria mahaikoa ordezkatzeko ari da; izan ere, azken urteetan, ordenagailu eramangarriaren erabilpenak nabarmen egin du gora.

Modu paraleloan, Gipuzkoako herritarrek teknologikoki aurreratuagoak diren elementu edo osagarri informatikoak txertatu dituzte, DVD grabagailuaren eta IPren gaineko ahots zerbitzua, esaterako; horiek %49ko eta %21eko eskuragarritasun tasak lortzen dituzte, hurrenez hurren.

d.1 koadroa__ Ekipamendu teknologikoak

(biztanle erabiltzaileen %)	
Ekipamendu informatikoa	
▪ Mahai gaineko ordenagailua	86
▪ DVD grabatzailea	49
▪ Ordenagailu eramangarria	35
▪ IP ahotsa	21
Bestelako ekipamendu teknologikoa	
▪ Kamera digitala	75
▪ MP3 erreproduzigailua	66
▪ Telefono mugikorra	97
▪ Bideo-jokoen kontsola	41
▪ Bideo-kamera digitala	30
▪ TV digitala	36
▪ Agenda elektronikoa (PDA)	13
▪ GPS sistema nabigatzailea	17

* Aukera anitzeko erantzuna.

iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Beste IKT ekipamenduen eskuragarritasunari dagokionez, sakelako telefonoaren ezarpen maila altua nabarmendu behar da; %97ko kuota lortu du Gipuzkoako biztanleria digitalaren artean. Esanguratsua da etxean bideo-joko kotsola duten internauten ehunekoa (%41).

Bestalde, aurrerapen garrantzitsuak gertatu dira gailu elektroniko digitalak, bai irudienak, bai soinuarenak, txertatzean. Ildo horretatik, herritar erabiltzaileen %75 inguruk aitortu dute argazki kamera digitala dutela; bien bitartean, mp3 irakurgailuen eta bideo kamera digitalen eskuragarritasun tasak %66 eta %30 inguruan kokatzen dira, hurrenez hurren.

Era berean, telebista digitalaren ezarpen mailan erregistratu den aurrerapen maila ere nabarmendu beharrekoa da; hori, neurri handi batean, 2010erako aurrez ikusitako itzalaldi analogikoak sustatu du. Hain zuzen ere, telebista digitalak tasa bikoiztu egin du azken urtean, 2006an biztanleria digitalaren %18 izatetik, 2007an %36 izatera pasatu da.

Gipuzkoako biztanleria digitalaren artean gailu eramangarrien, hau da, agenda elektronikoen (PDA) edo satellite bidezko nabigazio sistemen (GPS) eskuragarritasuna gora doa pixkanaka-pixkanaka, eta 2007an %13 eta %17ko ezarpen tasara iritsi dira hurrenez hurren.

d.2 koadroa__ Ekipamendu teknologikoak adin-taldean arabera

	(biztanle erabiltzaileen %)				
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Ekipamendu informatikoa					
▪ Mahai gaineko ordenagailua	94	82	82	89	83
▪ DVD grabatzailea	51	47	46	50	57
▪ Ordenagailu eramangarria	27	36	35	39	41
▪ IP ahotsa	26	19	19	18	29
Bestelako ekipamendu teknologikoa					
▪ Kamera digitala	78	74	77	72	69
▪ MP3 erreproduzigailua	85	62	60	65	46
▪ Telefono mugikorra	99	97	97	95	95
▪ Bideo-jokoen kotsola	61	39	36	35	21
▪ Bideo-kamera digitala	32	30	32	31	20
▪ TV digitala	35	41	31	39	37
▪ Agenda elektronikoa (PDA)	9	11	13	22	13
▪ GPS sistema nabigatzailea	16	16	16	19	21

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Biztanleria digitalaren adin tarte desberdinei jaramon eginez, ez da alde handirik nabari etxeko hornigai informatikoaren eskuragarritasunari dagokionez. Hala eta guztiz ere, adinak beste ekipo mota baten edo gailu teknologikoen txertatze maila baldintzatzen du; honakoena, esaterako: mp3


irakurgailuak edo bideo-kontsolak. Ildo horretatik, 15 eta 24 urte arteko biztanleria digitalaren %85k mp3 irakurgailua dute eta %61ek bideo-kontsola; beraz, 55 urte eta gehiagokoen segmentuan, proportzio horiek %46ra eta %21era murrizten dira hurrenez hurren.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da azken bideo-kontsola modeloek funtzionalitate berriak barneratu izanak ekipamendu hori sustatu dutela adinez nagusiagoak diren herritarren artean; besteak beste, hauek dira ekipamendu horiek: DVD irakurgailuak, Sarerako haririk gabeko konexioak, mp3 irakurgailuak edo USB irteerak.

Bestalde, Gipuzkoako etxeen konektagarritasunari erantzunez, eskuragarri dauden azken datuek agerian jarri dute banda zabaleko konexioa dela Gipuzkoako herritarren artean zabalduen dagoen Interneteko sarbidea, RTB (Oinarrizko Telefono Sarea) bidezko konexioaren kalterako.

Zehatzago esanda, etxean Interneteko sarbidea duten herritarren %76k konexio mota hori dute, bai ADSL (%65) bidez, bai kable (%11) bidez. ADSL konexioen kasuan, aurreko ekitaldian erregistratutako %40ko proportzioa gainditu egin da; bien bitartean, ohiko telefono lineak (RTB) %15eko atzerapena jasan du, eta 2006an %39an egotetik 2007an %24an egotera pasatu da.

d.1 grafikoa__ Etxeko konexio-motak




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Azken urteetako eraso informatikoen mehatxuak hazkuntza garrantzitsuak eragin ditu programen instalazioan eta informatika segurtasunaren irtenbideetan. Hori dela eta, eta atxikitako grafikoak erakusten duen moduan, birusak detektatzeko programak dira segurtasun neurri hedatuak. Zehazki, Gipuzkoako hamar internautatetik bederatzik (%93) aitortu dute beren sistema informatikoan birusaren kontrako programaren bat noiz edo noiz instalatu izana.

Gainera, biztanleria digitalaren erdiak edukien iragazkiak ditu, sistemaren erabiltzaileek sarbidea izango duten Interneteko edukiak kontrolatzera eta mugatzera zuzenduta. Aldiz, ordenagailuan erabiltzailearen identifikazio eta baimen sistema duten internauten ehunekoa %39ra murriztu da. Era berean, %7k informatika segurtasuneko beste programaren bat kontratatu edo instalatzea aukeratu dute.

d.2 grafikoa__ Segurtasun produktuen kontratazio edo instalazioa



* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

e



Interneten erabilera



e.


Interneten erabilera

Konektagarritasun lekua aintzat hartzen baldin bada, norbere helbidea edo etxea finkatzen da Gipuzkoako internauten sarbide nagusi gisa. Horrela, 2007an, internauten %88k adierazi dute etxetik sartzen direla Interneten, eta 2006an %85k aitortu zuten hori.

Sarbide alternatiboko beste leku batzuei dagokienez, herritar erabiltzaileen %39k adierazi dute lantokitik konektatzen direla Sarean; aldiz, %17k ikastetxetik egiten dute. Bestalde, herritar internauten %13k sarbide publikoko terminalak (liburutegiak, ziberaretoak edo Konekta Zaitetz zentroak, esaterako) erabiltzea aukeratzen dute; bien bitartean, gainerako %7 ziberkafetara joaten dira. Proportzio horiek ia-ia aldatu ere ez dira egin aurreko urtearekin alderatuta.

e.1 grafikoa__ Konektatzeko lekua

(biztanle erabiltzaileen %)



* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Adinak konektatzeko lekua baldintzatzen du, batez ere etxetik egiten ez diren beste leku batzuetako sarbideari dagokionez. Horrela, herritar gazteenek ikastetxetik [%53] eta sarbide publikoko terminaletatik [%21] konektatzea aukeratzen duten arren, adinez nagusiagoak diren taldeetan, lantokitik egindako sarbideen ehuneko altua nabarmendu behar da.

e.1 koadroa__ Internetera sartzeko lekua eta adina

[biztanle erabiltzaileen %, bertikala]


	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte edo gehiago
Etxea	94	89	83	87	88
Lantokia	15	43	52	48	31
Ikasketa-zentroa	53	7	8	8	4
Leku publikoak	21	14	11	8	9
Ziberkafeak	8	8	8	2	3

* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Ohiko sarbide lekuari dagokionez, Gipuzkoako internauten %80 batez ere etxetik konektatzen dira, %14 lantokitik konektatzen dira eta %2 batez ere ikastetxetik konektatzen dira Interneten. Gainerako %4k esan dute beste leku batzuetatik konektatzen direla. Genero bidezko azterketak ez du gizonen eta emakumezkoen arteko alderik agertzen.

e.2 grafikoa__ Konektatzeko lehentasunezko lekua eta sexua




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Espero daitekeen moduan, lehentasunezko sarbidea aldatu egiten da adinaren arabera. Hori dela eta, 15 eta 24 urte arteko tartean, etxea da (%88) sarbideko lehentasunezko lekua, beste sarbide leku batzuk baino gehiago, ikastetxea esaterako (%6). Adinez nagusiagokoen artean, gehienak etxetik sartzen diren arren, lantokitik nabigatzeko ohitura ere nabarmendu behar da.

e.3 grafikoa__ Konektatzeko lehenetsuneko lekua eta adina

(biztanle erabiltzaileen %)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Logikoki, laneko egoerak lehenetsuneko konektagarritasun lekua baldintzatzen du; horrela, lanean ari diren herritarrak (%21) soilik sartzen dira lantokitik; bien bitartean, gainerako taldeetan etxea izan ohi da sarleku nagusia.

e.4 grafikoa__ Konektatzeko lehentasunezko lekua eta lan-jarduerarekiko erlazioa

[biztanle erabiltzaileen %]




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Sartzeko maiztasunari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da azken urtean Gipuzkoako internautek areagotu egin dutela Sarearen erabilera. Hain zuzen ere, 2007an internauten %66k adierazi dute egunero konektatzen direla Interneten (%58 2006an); bien bitartean, %25 astero konektatzen dira (%31 2006an) eta gainerako %9 hilean behin edo gutxiagotan konektatzen dira (%11 2006an).

e.5 grafikoa__ Erabiltzeko maiztasuna

[biztanle erabiltzaileen %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Adinari begira, atxikitako grafikoak erakusten digu herritar gazteenek erabiltzen dutela gehien Sarea, eta adinez nagusiagoak diren herritarren artean maiztasuna murriztu egin da.

e.2 koadroa__ Erabiltzeko maiztasuna adin-multzoen arabera

[biztanle erabiltzaileen %, bertikala]

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Egunero	74	73	59	59	62
Astero	24	20	28	29	22
Hilero	2	5	10	11	11
Azken 3 hilabeteetan	0	2	4	1	5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Laneko egoerari dagokionez, ikasleak dira Internet gehien erabiltzen dutenak, langile autonomoek eta soldatapeko langileek baino gehiago.

e.3 koadroa__ Erabiltzeko maiztasuna lan-egoeraren arabera

[biztanle erabiltzaileen %, bertikala]

	Lanean, soldatakoa	Lanean, autonomia	Ikaslea	Langabezia	Erretiratu a	Etxean
Egunero	64	80	75	66	61	44
Astero	27	15	22	24	26	25
Hilero	7	3	3	10	11	22
Azken 3 hilabeteetan	2	2	0	0	3	8


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Erabilpenaren antzintasuna kontuan hartuz, ikus dezakegu Gipuzkoako internauten %45k 3 eta 5 urte artean daramatela Sarean nabigatzen; bien bitartean, %24k adierazi dute 6 eta 10 urte arteko esperientzia dutela. Bestalde, internauten laurden batek adierazi du 2 urte baino gutxiagoko antzintasuna duela.

Era berean, aipatu beharrekoa da azken urtean bikoiztu egin dela “*senior*” internauta kopurua; horrela, 10 urte baino gehiagoko erabilpen antzintasuna duten internauten proportzioa 2006an %3koa izatetik, 2007an %6koa izatera pasatu da.

e.6 grafikoa__ Erabilera-esperientzia

[biztanle erabiltzaileen %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Adin segmentuen araberrako aldagai honen azterketak agerian jarri du 25 eta 34 urte arteko taldeak duela esperientzia gehien Sarearen erabileran. Hain zuzen ere, biztanleria digital berriak (erabileran 2 urte baino gutxiagoko esperientzia duenak) ordezkaten du segmentu honen %22; beraz, adinez

nagusiagoak diren taldean (55 urte edo gehiago) proportzio hori %32ra iristen da.

e.4 koadroa__ Erabilera-esperientzia eta adina

(biztanle erabiltzaileen %, bertikala)

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
10 urtetik gora	1	7	9	3	12
6-10 urte	12	31	26	31	17
3-5 urte	61	41	40	37	39
1-2 urte	22	13	16	24	20
Urtebete baino gutxiago	4	9	9	4	12

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Laneko jarduerarekin duen loturari arreta ipiniz, adierazi behar da etxeko lanak egiten dituen taldea dela Internet gutxien erabiltzen duena. Hain zuzen ere, talde honetako internauten erdiek baino gehiagok 2 urte baino gutxiagoko esperientzia dute Internet erabiltzen.

e.5 koadroa__ Erabilera-esperientzia eta lan-egoera

(biztanle erabiltzaileen %, bertikala)


	Lanean, soldatakoa	Lanean, autonomoa	Ikaslea	Langabezia	Erretiratu	Etxean
10 urtetik gora	6	11	0	0	17	5
6-10 urte	28	27	10	42	14	18
3-5 urte	42	40	67	31	37	24
1-2 urte	16	15	19	23	16	38
Urtebete baino gutxiago	7	7	4	4	17	16

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Nabigazioko hizkuntzari dagokionez, atxikitako grafikoak agerian jarri du Gipuzkoako internautek gaztelania (%98) erabiltzen dutela batik bat, euskara (%36), ingelesa (%22) edo frantsesa (%7) baino gehiago.

e.7 grafikoa__ Interneten nabigatzeko erabilitako hizkuntzak

(biztanle erabiltzaileen %)



* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.



On-line zerbitzuak



f.

On-line zerbitzuak

Interes pertsonaleko informazioa lortzeko nabigazioa eta posta elektronikoaren erabilpena dira Gipuzkoako internautek gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak, %88 eta %83ko erabilpen tasekin, hurrenez hurren. Gainera, internauten proportzio handi batek albisteak kontsultatzeko (%71), eguraldiari buruzko informazioa lortzeko (%57) edo osasunaren (%39) edo trafikoaren (%36) moduko beste gai batzuk kontsultatzeko erabiltzen du Internet; horrez gain, baita finantza erakundeekin (%44) edo beste pertsona batzuekin (%44) erlazionatzeko ere.

Era berean, eduki digitalak jaisteko Sarearen erabilpen maila altua ere nabarmendu behar da; hain zuzen ere, herritar erabiltzaileen erdiak baino gehiagok (%53) aitortu du musika jaisten duela; beraz, %42k Sarea erabiltzen dute filmak/bideoak jaisteko, eta %39k irudiak eseki edo jaisteko.

Bestalde, enplegu bilaketa (%21), on-lineko jokoak (%20), komunitate sozialetan edo blogetan parte hartzea (%16) edo web partikularrak sortu edo mantentzea (%11) dira internautek gutxien egiten dituzten ekintzak.

Ondasunak eta zerbitzuak Internet bidez lortzeari dagokionez, zerbitzu turistikoaren erosketa (bidaiak, ostatua, hegazkineko billeteak eta abar) da gehien erabiltzen den zerbitzua (%36), ikuskizunetarako sarreren erosketa (%29) eta erabilpen pribatuko ondasunen erosketa (%27) baino lehenago kokatuz.

f.1 koadroa __ On-line erabiltzen diren zerbitzuak

	Biztanle erabiltzaileen %
Interes pertsonaleko zerbitzuak	88
e-mail bidezko komunikazioa	83
Albisteen kontsulta	71
Eguraldiari buruzko informazioa	57
Musika deskargatzea	53
Finantza-erakundeekin harremanak	44
Beste pertsona batzuekin harremanak	44
Filmak/bideoak deskargatzea	42
Argazkiak jarri eta deskargatzea	39
Osasunari buruzko informazioa	39
Zerbitzu turistikoak kontratatzea	36
Trafikoari buruzko informazioa	36
Ikuskizunetarako sarrerak erostea	29
Erabilera pribatuko ondasunak erostea	27
Enplegua bilatzea	21
On-line jolastea	20
Gizarte-erkidego/blog/foroetan parte hartzea	16
Webgune/blog bat sortzea/mantentzea	11

* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Hala eta guztiz ere, Internetekin lotutako erabilpenak nabarmen aldatzen dira internauten adinaren arabera. Ildo horretatik, eta informazio pertsonaleko bilaketak edo posta elektronikoari dagozkionak aldera batera utzita, esan dezakegu internauta gazteenek eduki digitalak (musika, filmak, bideoak, irudiak eta abar) jaisteko erabiltzen dutela Sarea batik bat, baita txaten edo berehalako mezularitza programen bidez beste pertsonekin erlazionatzeko ere: “*Messenger*”, “*Google talk*” edo “*Yahoo Chat*” zerbitzuak beste batzuen artean.

Hala eta guztiz ere, gainerako adin zentzuduneko segmentuetan finantza erakundeekiko harremanekin lotutako erabilerak eta osasun gaiei buruzko kontsultak nabarmendu behar dira, baita ikuskizunetarako sarreraren erosketara ere.

f.2 koadroa __ Erabiltzen diren on-line zerbitzuak adin-taldearen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Interes pertsonaleko zerbitzuak	85	91	88	88	89
e-mail bidezko komunikazioa	89	87	80	75	73
Albisteen kontsulta	65	72	72	75	74
Eguraldiari buruzko informazioa	49	65	62	54	49
Musika deskargatzea	81	57	41	39	32
Finantza-erakundeekin harremanak	17	53	54	51	46
Beste pertsona batzuekin harremanak	81	52	31	18	10
Filmak/bideoak deskargatzea	63	47	34	29	22
Argazkiak jarri eta deskargatzea	51	41	30	37	36
Osasunari buruzko informazioa	24	43	44	46	39
Zerbitzu turistikoak kontratatzea	28	46	34	32	34
Trafikoari buruzko informazioa	23	39	44	35	38
Ikuskizunetarako sarrerak erostea	20	31	29	34	33
Erabilera pribatuko ondasunak erostea	29	32	25	29	14
Enplegua bilatzea	23	41	11	6	4
On-line jolastea	41	25	11	8	2
Gizarte-erkidego/blog/foroetan parte hartzea	22	21	13	8	6
Webgune/blog bat sortzea/mantentzea	13	13	8	6	12

* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

On-lineko parte hartzeari dagokionez, adierazi beharrekoa da azken urteetan kanal eta bitarteko berriak zabaltzeak (foroak, komunitate sozialak, txatak, blogak, wikiak eta abar, esaterako) eta “web 2.0” filosofia zabaltzeak internauten parte hartzea zabaldu duela; gainera, erabiltzaileen artean lankidetzeta eta informazioa erraz trukatzeko sustatu du. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Internet erabiltzaileen %16k adierazi dute azken hiru urteetan Interneteko komunitate edo sare sozialen batean parte hartu dutela.

Gaiari dagokionez, zaletasunekin edo hobbyekin (%8), eta kulturarekin (%7) lotutako komunitate birtualak nabarmentzen dira, baita profesionalen komunitateak (%6), ikaskuntzarenak (%5) eta kirolarekin lotutakoak ere (%5). Bestalde, politikarekin lotutako sare sozial birtualek interes txikiagoa pizten dute Gipuzkoako internauten artean (%1).

f.1 grafikoa __ Komunitate birtualetan parte hartzeko on-line erabilera

[biztanle erabiltzaileen %]



* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Komunitate edo sare sozialetako parte hartze maila murriztu egiten da Interneteko erabiltzaileen adinak gora egiten duen neurrian. Hori dela eta, 15 eta 24 urte artekoek komunitate birtualetan duten parte hartze tasa %22an dagoen bitartean, 55 urte edo gehiagokoen taldean proportzio horrek nabarmen egin du behera, %6an kokatu arte.

f.3 koadroa __ Komunitate birtualetan parte hartzeko on-line erabilera adin-taldeen arabera

[biztanle erabiltzaileen %]


	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Parte hartzea komunitate birtualetan	22	21	13	8	6
■ Kirolak	8	5	5	2	3
■ Kultura	11	9	4	4	3
■ Profesionalak	5	11	2	3	3
■ Politika	1	2	2	1	1
■ Prestakuntza/ikaskuntza	7	9	4	2	1
■ Hobby/zaletasunak	13	12	5	2	5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Bestalde, Gipuzkoako internauten artean e-Administrazioaren eragina aintzat hartuz gero, adierazi behar da Foru Administrazioaren on-lineko zerbitzuen erabilpena aurrera doala. Zehazki, Interneteko erabiltzaileak diren herritarren %32k on-lineko zerbitzu publikoak aurreko urtean baino %1 gehiago erabili dituzte (%31).

Gehien erabilitako on-lineko zerbitzuei dagokienez, internauten %30ek Sarea erabiltzen dute Administrazioaren gaineko informazio gehiago lortzeko; beraz, inprimaki ofizialak jaistearren eta betetako inprimakiak bidaltzearen moduko zerbitzu aurreratuenek eragin txikiagoa (%15 eta %13, hurrenez hurren) erakusten dute.

f.2 grafikoa __ On-line erabilera Administrazioarekin erlazionatzeko



* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Oro har, adinak Interneten erabilera baldintzatzen du, baita on-lineko zerbitzu publikoena ere zehazki. Horrela, 25 eta 54 urte arteko internautek, lan merkatuan aktiboek direnek, erabiltzen dituzte gehien bat Administrazio Publikoak eskaintzen dituen on-lineko zerbitzuak.

f.4 koadroa __ On-line erabilerak Administrazioarekin erlazionatzeko adin-taldearen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Administrazioarekin erlazioa	17	39	41	32	26
▪ Informazio orokorra eskuratzea	15	36	38	32	26
▪ Inprimakiak eskuratzea	2	17	22	21	17
▪ Inprimakiak bidaltzea	3	15	17	15	12


* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Ezagutzaren arloan zentratuz, Gipuzkoako erabiltzaileen %32ren esanetan, trebakuntza edo izaera akademikoko helburuetarako sartzen dira on-lineko zerbitzuetan. Aintzat hartutako on-lineko trebakuntza jardueren artean, honakoak nabarmendu behar dira: ikastetxearekin lotutako heziketa arautua (%16), eskola osteko ikastaroak (%15) eta ikaskuntza ez formala (%15); beraz, enplegu aukerarekin lotutako ikastaroak eta hizkuntzen ikastaroak gutxiago aipatu dira (%8 eta %6, hurrenez hurren).

f.3 grafikoa __ Prestakuntza eta ikaskuntza bereganatzeko on-line erabilera

(biztanle erabiltzaileen %)




* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Adin taldekako azterketak erakusten digu internauta gazteenak (15 eta 24 urte artean) direla Sarea trebakuntza eta ikaskuntza helburuekin gehien erabiltzen dutenak. Hain zuzen ere, talde honetakoak diren internauten %46k adierazi dute trebakuntza arloko on-lineko jarduerak egiten dituztela. Bestalde, Internet formazio edo ikaskuntza helburuarekin erabiltzea ez dago hain zabaldua adinez nagusiagoak diren herritarren artean (%12).

f.4 grafikoa __ Prestakuntza eta ikaskuntzarako on-line erabilera adin-taldearen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Era berean, e-formaziorako sarbidea aldatu egiten da internauten lan egoeraren arabera. Horrela, gehien bat ikasle taldeak erabiltzen du Sarea trebakuntza eta ikaskuntza helburuarekin (%45); jarraian, langabezian dauden pertsonen (%40) eta lanean ari direnen (%32).

Hala eta guztiz ere, e-formazioa ez da hain garrantzitsua etxeko lanak egiten dituztenen, erretirodunen eta pentsiodunen artean (%8 bi kasuetan).

f.5 grafikoa __ Prestakuntza eta ikaskuntzarako on-line erabilera jarduerarekiko erlazioaren arabera

[biztanle erabiltzaileen %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Merkataritza elektronikoa gizarteratzea ez da hain erraza; beste gauza batzuen artean, transakzio elektronikoen segurtasun mailaren gaineko gorabeherak direla eta. Hori dela eta, Internet erabiltzen duten bost pertsonatik batek baino gutxiagok aitortu dute ondasunen edota zerbitzuen erosketak elektronikokoak egiten dituztela.


Hala ere, emaitza horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da internauten artean ikuskizunetako sarrerak erostearen moduko eragiketak oso ohikoak diren arren, horrela hartu ahal izan diren kasuetan, zenbaitetan ez direla hartzen merkataritza elektronikoko praktika gisa.

Hala eta guztiz ere, egiaztatuta dago merkataritza elektronikoa egiten duten erabiltzaileen proportzioa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera.

Horrela, 15 eta 24 urte arteko herritarren artean %18k soilik aitortu dute Sarea erabiltzen dutela ondasunak edota zerbitzuak lortzeko, eta bestalde, 25 eta 34 urteko tartean, proportzio horrek gora egin du %31ra iritsi arte. Hortik aurrera, erosketak elektronikokoak egiten dituzten internauten ehunekoa beherantz doa mailaz maila: 35-44 urteko tartean %24, 45-54 urteko tartean %22, eta adinez nagusienak direnen (55 edo gehiago) taldean %13ra iritsiz.

f.6 grafikoa __ Erosketa elektronikoak adin-taldeen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Internet bidez erosteko lehentasunei dagokienez, zerbitzu turistikoak (garraioa eta ostatua, batik bat) eta ikuskizunetarako sarrerak nabarmentzen dira gainerako produktuekin/zerbitzuekin alderatuta; erosketa elektronikoak egiten dituzten Gipuzkoako internauten %45ek eta %41ek (hurrenez hurren) adierazi dute hori.

Horrez gain, ordena honetan, erosketa hauek ere egiten dituzte: liburuak eta aldizkariak (%27), albisteak eta informazioa (%26), arropa eta kirol materiala (%22), informatika materiala (%21), softwarea eta bideo-jokoak (%19), etxerako produktuak (%17), musika eta tresnak (%16), finantza produktuak (%12), bideoak eta filmak (%12) eta produktu elektronikoak (%11).

Autoak, motoak edo horiekin lotutako beste mota batzuetako osagaiak erostea (%8), loteria erostea eta apustuak egitea (%5) neurri txikiagoan aipatzen dituzte Gipuzkoako internautek.

f.7 grafikoa __ Internet bidez erositako ondasun eta produktu nagusiak

	Erosketaren bat egin duten biztanle erabiltzaileen %
Bidaiak edota oporretarako ostatua	45
Ikuskizunetarako sarrerak	41
Liburuak, aldizkariak	27
Albisteak, informazioa	26
Arropa edota kirol materiala	22
Informatika materiala	21
Softwarea edota ordenagailurako programak (bideojokoak barne)	19
Etixerako produktuak	17
Musika, musika-tresnak	16
Akzio/baloreen, seguruen edo bestelako finantza-zerbitzuen erosketa	12
Bideoak, filmak	12
Ekipamendu elektronikoa (argazki kamera barne)	11
Bestelakoak	10
Autoak, motoak, osagaiak	8
Loteriak edo apustuak	5

* Azken hiru hilabeteetan. Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

g



Bizitza estiloa eta jarrera digitala




g. Bizitza estiloa eta jarrera digitala

Gaur egun, bistakoa da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknlogiek gizartean zer nolako eragina duten; baita pertsonen harremanetan eta eguneroko bizitzan ere. Hori dela eta, eta Gipuzkoako biztanleria digitalari dagokionez, hamar internautatetik hiruk gogo biziko jarrera agertzen dute eta, horien ustez, Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak beharrezkoak (%13) edo garrantzitsuak (%16) dira eguneroko bizitzan.

Gainera, herritar erabiltzaileen %65ek adierazi dute teknologia horiek erabilgarriak direla beren jarduera profesionala garatzeko eta, ondorioz, erabili egiten dituzte; aldiz %5ek adierazi dute nolabaiteko interesa dutela horietan, eta %1ek ez dutela inolako interesik.

g.1 grafikoa__ Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Adinaren arabera, teknologia horien eragina handiagoa da herritar gazteen artean (15 eta 34 urte artean); beraz, 35-44 urte arteko segmentua eszeptikoago agertzen da IKTek beren eguneroko jardueretan izan dezaketen eraginaren aurrean.

g.1 koadroa__ Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean adin-taldeen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Funtsezkoa da nire bizitzan	14	14	12	13	11
Garrantzitsua da nire bizitzan	22	18	14	11	9
Erabilgarriak dira eta erabiltzen ditut	60	66	65	66	70
Interesa dut	3	3	6	7	8
Ez dut interesik	1	0	3	3	2

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Era berean, laneko egoeraren araberrako azterketak agerian jarri du teknologia berrien eragina handiagoa dela ikasleen eta soldatapeko langileen eguneroko bizitzan. Horrez gain, IKTen eragina baloratzean, etxeko lanak egiten dituztenen artean nabaritu da ehunekorik baxuena.

g.2 koadroa__ Jarrera pertsonala Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean lan-egoeraren arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	Lanean, soldatkoa	Lanean, autonomoa	Ikaslea	Langabezian	Erretiratu	Etxean
Funtsezkoa da nire bizitzan	15	10	13	0	5	5
Garrantzitsua da nire bizitzan	16	8	23	27	3	9
Erabilgarriak dira eta erabiltzen ditut	62	74	60	69	79	75
Interesa dut	4	8	4	4	10	6
Ez dut interesik	2	1	0	0	3	6


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Teknologia berriek Gipuzkoako herritarren bizitzan duten eraginaren azterketari jarraituz, atxikitako grafikoak agerian jartzen du internauten laurden baten ustez, Internetek garrantzi handia duela beren eguneroko jarduerak garatzerakoan eta, are gehiago, Sarea desagertuko balitz, jarduera horiek oso nekez egin ahal izango lituzketela eta zenbait kasutan, ezingo lituzketela gauzatu.

Gipuzkoan, Internet erabiltzen dutenen %66k adierazi dute Internetik ez egoteak beren bizitza aldatuko lukeela nolabait; bestalde, %10ek agertu dute inolako zailtasunik gabe biziko lirakeela Internetik gabe.

g.2 grafikoa__ Interneten eragina eguneroko jardueretan

(biztanle erabiltzaileen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Hala eta guztiz ere, adinaren arabera aldatu egiten da bizitzako alor desberdinetan Interneten eraginaren gaineko pertzepzioa. Atxikitako koadroan agertzen den moduan, teknologia berrien intzidentzia maila handiagoa da adinez txikiagoak (15 urtetik 34 urtera) diren taldeetan, eta txikiagoa adinez nagusiagoak direnetan.

g.3 koadroa__ Interneten eragina eguneroko jardueretan adin-taldearen arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 urte eta gehiago
Eragin handia/oso handia	26	27	21	23	15
Erdi/behe mailako eragina	61	67	69	64	69
Eragin txikia	13	6	10	13	16

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Azkenik, lan egoeraren arabera, Interneten eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eragina garrantzitsuagoa da lanean ari diren herritarren eta ikasleen artean, gainerako erabiltzaile taldeetan baino.

g.4 koadroa__ Interneten eragina eguneroko jardueretan lan-egoeraren arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	Lanean, soldatkoa	Lanean, autonomoa	Ikaslea	Langabez ian	Erretirat ua	Etxean
Eragin handia/oso handia	27	20	26	11	11	6
Erdi/behe mailako eragina	63	70	65	75	69	74
Eragin txikia	10	9	8	14	20	20

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.